ehbildu

Olaberria

**1. alea**
2024ko apirila

# Gauzak ez dira horrela Gauzak horrelaxe daude

## Las cosas no son así. Las cosas están así




Azalaren irudia
*Lucía Calvo - lulumka*

# Udaleko aurrekontuak 2024 | 4.000.000 €

**EH BILDU ABSTENITU EGIN DA.** EH BILDUREN PROPOSAMENAK **5 PUNTU NAGUSITAN LABURBILDU DITUGU:** INBERTSIOAK, HARRERA HERRIA, ZAINTZA, HERRI JASANGARRIAGOA ETA GOBERNANTZA EREDU BERRIA.







## 01 INBERTSIOAK

- Frontoari gradak ezartzeko aurreproiektua.
- Herri gunean lursail bat erosi alokairuzko etxebizitzak egiteko.
- Ihurren lokal bat erosi eta gizarte langilearen arreta bulego bezala egokitu.
- Dauden autobus geltokiak berritu eta berriak egin beharra identifikatu.
- Planteatutako txakur parkea egitea.
- Komunikazio eta antolakuntza lanak aurrera eramateko langile baten kontratazioa: gazte, emakume, memoria taldea...

- Anteproyecto para las gradas del frontón.
- Compra de terreno en zona urbana para viviendas en alquiler.
- En Ihurre acondicionamiento de un local como Oficina para la trabajadora social.
- Renovar y hacer nuevas paradas de autobús identificando las necesidades.
- Llevar a cabo el parque de perros.
- Contratación de un@ dinamizadora para llevar a cabo tareas de dinamización, comunicación y organización con jóvenes, mujeres y distintos agentes.

# 02
# HARRERA HERRIA

## 1996an ez zegoen Olaberrian Estatutik kanpo jaiotako inor erroldatuta eta gaur egun % 13,7 dira




Espainiako estatutik kanpo etorri diren herritar ugari dugu udalerrian. **1996an ez zegoen Olaberrian Estatutik kanpo jaiotako inor erroldatuta eta gaur egun % 13,7 dira. Ihurreko kasuan % 19.6 (Gipuzkoako batez bestekoa % 11,3koa da).**

Egoera honengatik, Harrera Integralerako proiektu bat egitea proposatu dugu. Herriko berri eman eta interesgarri izan dakieken informazioa eta harreman-bideak eskuragarri jartzea izango da udaletik martxan jarri nahi dugun proiektua. Honek elkar ezagutza sustatu eta herrian saretzeko aukera sortzea ere ekarriko du, ongi-etorri pertsonalizatuena egin asmoz. Aniztasunaren, migrazioen edota identitateen inguruan udalean harrerarako protokolo bat osatuko genuke: eskolaratzeko haurrei arreta, etorri berriei herrian dauden zerbitzuen gida osatuz... Herrian txertatzeko bidea erraztea izango da helburua.



El municipio cuenta con numeros@s ciudadan@s que han venido de fuera del estado español. **En 1996 no había ningún nacid@ fuera del Estado en Olaberria y en la actualidad representan el 13,7 %. En el caso de Ihurre el 19.6 % (la media de Gipuzkoa es del 11,3 %).**

Esta situación nos ha llevado a proponer la elaboración de un proyecto de Acogida Integral. El proyecto que proponemos poner en marcha desde el Ayuntamiento será el de elaborar un proyecto de Acogida Integral, dar a conocer la localidad y poner a disposición la información y los canales de relación que les puedan ser de interés. Esto también supondrá fomentar el conocimiento mutuo y crear la posibilidad de integrar en el pueblo, con el objetivo de hacer una bienvenida más personalizada. Elaborar un protocolo de acogida municipal sobre diversidad, migraciones o identidades. Atención a l@s niñ@s para su escolarización, elaborando una guía de servicios que da el Ayuntamiento a los recién llegados. El objetivo será facilitar la vía de inserción en el pueblo.

# 03
# HERRI JASANGARRIAGOA

«Azken urteetako lanketari jarraipena emateko borondate eta konpromezu osoarekin, herriko natura-ondarea babestu eta hobetzeko honako ekintzak aurreikusten ditugu»



## «Herriko natura-ondarea babestu eta hobetuz»

- AHT-aren betelanen eremuan erositako lursailak hobetzeko ekintzak. Herrilur berriak eskuratzen jarraitu, larre edo bertako baso bihurtzeko.
- Herriko etxe nahiz enpresetako teilatuetan eguzki plakak jartzeko ikerketa bat egin.
- Arcelorren sortzen den berokuntza, Ihurrera bideratzeko aurreproiektua landu.
- Bus ordutegia handiagotzeko saiakera egin.
- Teknikariekin herrian auzokonpostak ezartzeko bidea hasi.
- Olaberriko tresna elkartea aktibatu eta jarraipena eman. Baserrietan bizi direnekin eta interesdunekin parte hartze prozesu bat hasi.
- Elikagaien ekoizpenerako potentzial handia dugu eta udaletik zubilanak sustatu behar ditugu.

- Acciones de mejora de los terrenos adquiridos en la zona de relleno del TAV. Seguir adquiriendo nuevos terrenos para convertirlos en pastos o bosques autóctonos.
- Hacer un estudio de colocación de placas solares en los tejados de las casas y empresas.
- Elaboración del anteproyecto del calor que genera Arcelor para su derivación a Ihurre.
- Intentar aumentar el horario de bus.
- Iniciar el camino para la implantación de compost vecinales en el municipio.
- Activar y dar continuidad a la asociación de aperos de baserritarras de Olaberria. Iniciar un proceso participativo con las personas residentes e interesadas en los caseríos.
- Impulsar el potencial productivo de los alimentos que hay en la localidad desde el ayuntamiento.

# 04
# ZAINTZA





Zaintza komunitario integral bat martxan jartzeko lan egingo dugu. Egungo ereduak ez dute erantzuten pertsonen eta haien familien beharrei eta Udala herritarrengana gerturatzea dagokigu.

Trabajaremos para conseguir un cuidado integral comunitario. El modelo actual no responde a las necesidades de las personas y sus familias y nos corresponde acercar el Ayuntamiento a la ciudadanía.

# 05
# GOBERNANTZA EREDU BERRIA

XXI. mendeko gizarte honek dituen erronka konplexuei tokikotik eta bokazio eraldatzailearekin erantzun nahi badiegu, premiazkotzat jotzen dugu udala eraldatzea. Udaletik antolaketa eredu berri bat eraikitzen herritarrekin, lankidetzazko gobernantza eredu berri baterako lehen oinarriak ezartzea da helburua.

Horretarako, prozesu parte-hartzaile baten beharra martxan jartzea beharrezkoa ikusten dugu. Legegintzaldi osoan zehar komunikazioa, auzo bilerak, auzo ezberdinetako premiak jasotzeko aukerak sortu behar direla guztiz konbentzituta gaude.

Si queremos responder desde lo local y con vocación transformadora a los complejos retos a los que se enfrenta esta sociedad del siglo XXI, consideramos urgente transformar el ayuntamiento.

Se trata de asentar las primeras bases para un nuevo modelo de gobernanza colaborativa con la ciudadanía en la construcción de un nuevo modelo organizativo desde el Ayuntamiento. Lo que va a ser transversal, una forma de trabajar y una nueva etapa que empodere la gestión municipal y al ciudadan@.

***«Goiekin egitea beharrezko ikusi dena eta bertan herri guztiek parte hartu badugu, guk herrian horrelako zerbait martxan jartzea posible da, borondatea badago eta udaletik beste era batera gauzak egin nahi badira»***

*«Lo que se ha visto necesario hacer en Goieki donde hemos participado todos los municipios del Goierri, incluido Olaberria. Es posible que pongamos en marcha en el pueblo, si hay voluntad y si desde el ayuntamiento se quieren hacer las cosas de otra manera»*

# Udal HOBARIAK

## ABERASTASUN BANAKETA JUSTUAGO BATEN ALDE

POR UN REPARTO MÁS JUSTO DE LA RIQUEZA



Azken urteetan hainbat aldiz proposatu dugun arren, **udal gobernuak ez du borondaterik martxan jartzeko.** Lazkaon eta Goierriko beste hainbat herrietan martxan dituzte dagoeneko.

Indarra jarri nahi dugu hobarietan. **Hobarien bidez, lagundu baititzakegu benetan egoera zaurgarrienetan dauden pertsona eta bizikidetza-unitateak,** gutxien dutenek gutxiago ordainduz. Hobariak ezartzeko irizpidea herritarren diru-sarrerak kontutan izatea izango litzake.

Hobariak aplikatu daitezkeen zerbitzuak hainbat izan daitezke: ur hornidura zerbitzua, hondakinen bilketa, estolderia, etxebizitzari dagokion tarifa edo etxebizitzak alokairuan hartzeagatik, udal baratzak, igerilekua, gimnasioa, ikastaroak, ea...

Aunque lo hemos propuesto varias veces en los últimos años, **el gobierno municipal no tiene voluntad de ponerlo en marcha**. Ya están en marcha en Lazkao y otras localidades del Goierri.

Queremos poner énfasis en **las bonificaciones, a través de los cuales podemos ayudar realmente a los que se encuentran en las situaciones más vulnerables**. Pagando menos los que menos tienen. El criterio para las bonificaciones sería tener en cuenta los ingresos de l@s ciudadan@s.

Los servicios en los que se pueden aplicar bonificaciones pueden ser varios. Servicio de abastecimiento de agua, recogida de residuos, alcantarillado, tarifa correspondiente a la vivienda o por alquiler, huertas municipales, piscina, gimnasio, cursos, etc.

| BIZIKIDETZA UNITATEKO PERTSONA KOPURUA | **HOBARIA** 2024 BONIFICACIÓN | | |
|---|---|---|---|
| | **% 90** | **% 75** | **% 50** |
| 1 | < 14.861 € | 14.861 € - 16.888 € | 16.889 € - 20.265 € |
| 2 | < 19.454 € | 19.454 € - 22.021 € | 22.022 € - 26.480 € |
| 3 | < 21.211 € | 21.211 € - 24.183 € | 24.184 € - 29.047 € |
| 4 edo gehiago | < 22.832 € | 22.832 € - 26.074 € | 26.075 € - 31.208 € |

# ABIADURA HAUNDIKO TRENA Olaberriatik

TAV POR OLABERRIA

**ESPAINIAKO GARRAIO, MUGIKORTASUN ETA HIRI AGENDA MINISTERIOAK ESTUDIO ALTERNATIBO BAT MARTXAN JARRI DUTE NAFARROAKO AHTA EUSKAL Y-AREKIN LOTZEKO, ARALAR ZEHARKATUZ. OLABERRIA ETA IDIAZABAL ARTETIK PASAKO LITZATEKE.**

«Azkeneko Ohiko Osoko Bilkuran zundaketen inguruko mozioa tratatu genuen. Bertan EH Bilduko hiru zinegotzik eta OEO taldeko zinegotzi batek mozioaren alde egin genuen. Alkatea eta beste bi zinegotziak abstenitu egin ziren mozioa aurrera ateraz»




Dagoeneko Sakanako zein Goierriko udalerriek jaso dituzte Espainiako Ministerioaren aldetik zundaketa lanak egiten hasteko oharra eta zehaztapenak. Trenbideak Lakuntza eta Ataun alderik alde zeharkatuko lituzke, Atxurbiren eta Olaberriko Iranzuaga baserriaren azpitik pasatuz. **AHTa ez dago sarrera eta irteera bakarraz osatuta, tartean, mantenu, larrialdi eta bestelako zerbitzuetarako tunel berri batzuk ere eraikiko lirateke, baita eremu horietara iristeko errepide berriak eta obrako soberakinak pilatzeko eskonbrera erraldoiak ere.**

Gure udalerrian zundaketa hauei alkatetza dekretu bidez oniritzia eman zaien bitartean, Idiazabal eta Ataungo udalek ezezkoa eman diete. Gure udalerriko eta gure bizilagunen interesak babestea ezinbestekoa da. Ezin da euro bat gehiago inbertitu egunetik egunera zalantza gehiago eta gure eskualdeetan aurkako gero eta jarrera zabalagoa sortzen duen azpiegitura zentzugabe batean.

En el último Pleno Ordinario se trató la moción sobre los sondeos. Ha salido adelante con los votos a favor de tres concejales de EH Bildu y uno de OEO. El alcalde y otros dos concejales se abstuvieron.

El ferrocarril atravesaría Lakuntza y Ataun de lado a lado, pasando por debajo de Atxurbi y del caserío Iranzuaga de Olaberria. **También se construirían unos nuevos túneles de mantenimiento y de emergencia, nuevas carreteras y enormes escombreras.**

Mientras en nuestro municipio la alcaldía ha dado el visto bueno, los ayuntamientos de Idiazabal y Ataun han dado la negativa. Debemos proteger los intereses de nuestro municipio y de nuestr@s vecin@s . No se puede invertir un euro más en una infraestructura absurda que cada día genera más dudas y una oposición cada vez más amplia en nuestras comarcas.

# ETXEBIZITZA aukerak herrian

«2023an egin genuen proposamena errealitate bihurtu da. 361m² lokal erosi dira Ihurre auzoan etxebizitzetarako»

Etxebizitza politika berria martxan jartzeko, **etxe hutsen zein etxebizitza beharraren azterketa egitea proposatu eta egin genuen,** parte hartze prozesu bidez udalerrian, pasa den urtean Aztikerrekin. Bi erronka nagusi atera ziren: batetik Ihurren hutsik dauden lokalak erosi etxebizitza bihurtzeko eta herri gunean etxebizitza sozial eta alokairuzkoak egiteko promozio bat martxan jartzea.

Udalerrian 67 etxebizitza huts daude. Ihurren %15.5 eta Herri gunen %13,2. Herritarrak erroldatuta dauden etxebizitzak berriz 396 dira.

Aurtengo aurrekontuetarako **Herri gunean lursail bat erostea proposatu dugu, alokairuzko etxebizitzak egiteko,** lehen etxebizitza eskuratzeko premiak asetu asmoz.

Para poner en marcha la nueva política de vivienda, propusimos y **realizamos el estudio de las viviendas vacías y de la necesidad de vivienda,** mediante un proceso participativo el año pasado con Aztiker. Salieron dos grandes retos. Comprar locales vacíos en Ihurre para convertirlos en viviendas y poner en marcha una promoción de vivienda en alquiler y social en el casco urbano.

El municipio cuenta con 67 viviendas vacías. 15.5% de Ihurre y 13,2% en el casco. 396 son las viviendas donde la población está empadronada.

Para los presupuestos de este año **hemos propuesto la compra de un terreno en el Casco para la construcción de viviendas en alquiler,** con el fin de satisfacer las necesidades de acceso a la primera vivienda.



«Egitasmo pribatuarekin hitzeginez akordio batera iristeko proposamen bat egin diogu udal gobernuari, baina ezezkoan daude»

*Egitasmo pribatu baten ondorioz, elizaren bueltan egiteko asmoan dauden etxeak. HAPOan igerilekuak etxe pribatuetan ez egitea udalak aurreikusi balu gaur ez lirateke egingo, ura ez da luxu bat, ura behar bat da.*

*Casas que, como consecuencia de un proyecto privado, se proyectan hacer a la vuelta de la iglesia.*

# GEOGRAMA

## LANDA LURZORUAREN DIGITALIZAZIOA
DIGITALIZACIÓN DEL SUELO RURAL



«EH Bilduk proposatuta, herriko lau poligonoetako landa-lurzoru osoko lursailen mugak digitalki jaso dira, GPS bidez georeferentziatuta egon daitezen»

**Gipuzkoako lurren % 90 landa-lurra da, eta historikoki lur horiek baserriari lotuta egon dira.**

Hala ere, azken hamarkadetan, lursail horien mugarriei buruzko ezagutza galtzea ekarri du. Egoera horren jakitun, Olaberriko EH Bilduk proposatuta, herriko lau poligonoetako landa-lurzoru osoko lursailen mugak digitalki jaso dira,  GPS bidez georefe-rentziatuta egon daitezen.

Alegazio epea pasa ondoren, azken liburuxkak jabeei banatuko zaie. Aurrerantzean katastroan zuzendua izango da eta etorkizunera begira, **ondorengo belaunaldiek informazio argia eskura izan dezaten aukera baliatu dugu.**

**El 90% de los terrenos de Gipuzkoa son rústicos, que históricamente han estado vinculados al caserío.**

Sin embargo, en las últimas décadas, ha supuesto una pérdida de conocimiento sobre los hitos de estos terrenos. Conscientes de esta situación, a propuesta de EH Bildu de Olaberria, se han recogido digitalmente los límites de los terrenos de todo el suelo rural de los cuatro polígonos de la localidad para que estén georeferenciados mediante GPS.

Una vez transcurrido el plazo de alegaciones, se entregarán los últimos cuadernos a l@s propietari@s. A partir de ahora será corregido catastralmente y, de cara al futuro, **hemos aprovechado la oportunidad para que las generaciones posteriores tengan acceso a una información clara.**

# LANDA LURREN aprobetxamendua

Olaberriko udalak herri lurrak irregulartasunekin gestionatzen zituela ikusi genuen eta landa lurraren gehiagotzera jo dugunez esleipen berri bat sortu eta herriko lehen sektoreari eskeintzea izan da gure nahia. Udalak Esleipen berri bat atera du eta honela dio: bere garaian helburuen artean honako hauek dauzka: landa lurrak babestea, bertako abeltzaintza iraunkorra sustatzea eta ingurumena zaintzea.

Vimos que el ayuntamiento de Olaberria gestionaba los terrenos comunales con irregularidades y como hemos recurrido a la ampliación del suelo rural hemos creado una nueva adjudicación que hemos querido ofrecer al sector primario de la localidad. El Ayuntamiento ha sacado una nueva Adjudicación que dice que, en su momento, tiene entre sus objetivos la protección del suelo rural, la promoción de su ganadería sostenible y la conservación del medio ambiente.



«Abeltzaintzatik bizi direnei eta jarduera ekologikoa sustatzen dutenei garrantzia eman nahi diegu»



**Benetan, bertako abeltzaintza iraunkorra sustatzea bada helburua, ez gaude ados publiko egin diren irizpideekin eta deialdiak egiteko moduekin.**

Si el objetivo es fomentar una ganadería autóctona sostenible, no estamos de acuerdo con los criterios que se han hecho públicos y con las formas de realizar las convocatorias.

Balorazio bat egite aldera. 50 puntu ordaindu beharreko prezioa hobetzean jartzeak uste dugu, udalak etekin ekonomikoari dagokiona gehiegizko puntuazioa dela, eta gehienezko bat ezarri beharko litzatekeela. Udalak etekin ekonomikoak helburu bezela saihestuz.

Para hacer una valoración. Creemos que poner 50 puntos en mejorar el precio a pagar es una puntuación excesiva de lo que corresponde al beneficio económico municipal, y habría que establecer un máximo. Evitando los beneficios económicos municipales como objetivo.

## PUNTUAKETAK

PUNTUACIONES

Puntuaketari begira horrelako irizpideak aurkeztu ditu Udalak. Ez gaude batere ados prezioari 50 puntu eranstea. Guk irakurketa hau egiten dugu: benetan, bertako abeltzaintza iraunkorra sustatzea bada helburua, horretarako irizpide ekonomikoez haratago, helburu hauek erdiesteko legezkoak diren beste irizpide batzuk baloratzea beharrezkoa ikusten dugu:

El Ayuntamiento ha presentado este tipo de criterios a efectos de puntuación. No estamos en absoluto de acuerdo en añadir 50 puntos al precio. Nosotros hacemos esta lectura. Si realmente se trata de fomentar una ganadería autóctona sostenible, más allá de criterios económicos para ello, consideramos necesario valorar otros criterios legales para alcanzar los siguientes objetivos:

| | UDALA | EH BILDU |
|---|---|---|
| 1. Ustiategia Olaberriako udalerrian egotea.<br>Ubicación de la explotación en el término municipal de Olaberria. | 40 PUNTU | 40 PUNTU |
| 2. Abeltzain/nekazari gaztea izatea.<br>Joven ganadero/agricultor. | 10 PUNTU | 15 PUNTU |
| 3. Ordaindu beharreko prezioa hobetzea.<br>Mejorar el precio a pagar. | 50 PUNTU | 0 PUNTU |
| 4. Nekazaritza / abeltzaintzatik bizitzea (urteko errentaren %50 gutxienez nekazaritza jardueratik jasotzea).<br>Vivir de la agricultura / ganadería. | 0 PUNTU | 30 PUNTU |
| 5. Jarduera ekologikoa izatea.<br>Actividad ecológica. | 0 PUNTU | 10 PUNTU |
| 6. Esleitu nahi den lursailaren mugantea edo esplotazioaren inguruan izatea.<br>Limitante o entorno a la explotación de la parcela que se pretende adjudicar. | 0 PUNTU | 5 PUNTU |



«Agrarian alta emanda daudenei gutun pertsonalizatua bidali ordez, difusiotik soilik egin du udalak, interesdun batzuk jakin gabe geratuz»




# Erabaki aldaketa

## Enfoca en futuro

**Gizarteak agindu demokratiko bat eman digu, eta horrek erantzun bat eskatzen du. Konfort esparruetatik aterako den politika bat, interes pertsonaletatik kanpo batzeko.**

La sociedad nos ha dado un mandato democrático que exige una respuesta. Una política que salga de los ámbitos de confort para sumar fuera de los intereses personales.

**ehbildu**
**Olaberria**

Facebook /EHbildu_herria
twitter @ehbilduolaberria
Instagram ehbilduolaberria
email olaberria@ehbildu.eus